



UZTAILA -
ABUZTUA
JULIO -
AGOSTO

2013

Alhóndiga
Bilbao

Kultura Bizi
Den Tdkia
Donde Vive
la Cultura

HILEKO LANKIDETZA / LA COLABORACIÓN DEL MES	
GERFRIED STOCKER. Artistak, elementu katalizatzaile gisa / Artistas, como catalizadores	4

ARTEA ETA KULTURA ARTE Y CULTURA

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN	
ARTISTS AS CATALYSTS	7
ELKARRIZKETA / ENTREVISTA PAOLO CIRIO	15

ARTEA ETA TEKNOLOGIA ARTE Y TECNOLOGÍA	
TAILERRA / TALLER THE FREE UNIVERSAL CONSTRUCTION KIT. GOLAN LEVIN.	19

MUSIKA MÚSICA	
TERRAZA CLUB. ASTE NAGUSIA 2013	20

ZINEMA CINE	
ZINEMATEKA SATYAJIT RAY	24
ZINEMATEKA EMAKUMEZKO SORTZAILE GARAIKIDEAK CREADORAS CONTEMPORÁNEAS	26

ARTE BIZIAK ARTES EN VIVO	
DENGUE FEVER	28

ARTEA ETA EZAGUTZA ARTE Y CONOCIMIENTO	
BULEGOA Z/B	30
AA VISITING SCHOOL	31

MEDIATEKA BBK

ETZULKIKO IRAKURKETAK / LECTURAS DE TUMBONA	33
INBENTARIOA ETA MANTENTZE-LANAK MEDIATEKA BBKN INVENTARIO Y MANTENIMIENTO EN LA MEDIATEKA BBK	34
PROGRAMAZIO EGONKORRA / PROGRAMACIÓN ESTABLE	35

LURREKO ETA URETAKO JARDUERAK ACTIVIDADES EN TIERRA Y AGUA

EZAGUTU BILBAO, BIZIKLETATIK / PASEOS EN BICI	37
LURREKO JARDUERAK / ACTIVIDADES DE TIERRA	38
URETAKO JARDUERAK / ACTIVIDADES DE AGUA	39

LASTER PRÓXIMAMENTE	40
----------------------------	----

KANPOKO PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN EXTERNA	43
--	----

MERKATARITZA GUNEA ESPACIO COMERCIAL	45
---	----

INFORMAZIO OROKORRA INFORMACIÓN GENERAL	47
--	----

UZTAILA ETA ABUZTUKO JARDUEREN EGUTEGIA / CALENDARIO DE ACTIVIDADES DE JULIO-AGOSTO	48
PLANOA / PLANO	50

GERFRIED STOCKER

KOMISARIOA COMISARIO
ARTISTS AS CATALYST

ARTISTAK, ELEMENTU KATALIZATZAILE GISA

'Artists as Catalysts' (Artistak katalizatzaile gisa) erakusketak gizarte-egoeretan aktibismo artistikorako gero eta joera handiagoa jorratzen du. Gero eta artista gehiago irteten dira erakunde artistiko eta kulturaletan dituzten ohiko inguruneetatik, eta benetako ekintzeara igarotzea edo menturatzea erabakitzen dute. Artista hauek prototipo sorta bat sortzen aritu dira eta erakutsi digute, halaber, pentsatzeko modu alternatibo batzuk aplikazio erreal bilaka daitezkeela, gizarte-ekintzarako tresnak garatuz eta informazio-kanpainak eta hezkuntza-programak abiaraziz eta zuzenduz. Beren baitan, eginkizun jakin batzuen abiarazle, sustatzaile, iradokitzaile eta eredu sentitzen dira.

Azken urteotan artea eta teknologia uztartzeko ideia horrek gero eta indar handiagoa hartu duen arren, itxaropenaren adierazpide gisa bereganatu du batik bat arreta edo, are gehiago, baita azken gotorleku gisa ere, globalizazioaren erronkei aurre egiteko Europak sentitzen duen gero eta berreraikitze-premia handiagoa kontuan izanik. Baina jende gutxi ulertu du sormena eta berrikuntza ez direla zerutik erortzen. Gauzarik garrantzitsuena hori guztia zaindu eta elikatu beharreko ekosistema baten modura ulertzea da, kontu eta dedikazio handiz hazi dadila erdietsiz.

ARTISTAS, COMO CATALIZADORES

'Artists as Catalysts' (Artistas como catalizadores) hace referencia a la tendencia cada vez más agudizada al activismo artístico en situaciones sociales. Cada vez más artistas salen de sus entornos habituales en instituciones artísticas y culturales, y deciden aventurarse y pasar a la acción real. Estos artistas han estado creando una serie de prototipos que nos demuestran que formas alternativas de pensar se pueden transformar en aplicaciones reales, desarrollando herramientas para la acción social, e iniciando y dirigiendo campañas informativas y programas educativos. Se sienten en sí mismos en su papel de iniciadores, de contribuidores, de incitadores y de modelos para unos determinados roles.

Aunque la idea de unir arte y tecnología ha cobrado fuerza en los últimos años, ha copado la atención principalmente como expresión de esperanza o, es más, incluso en calidad de último baluarte ante la necesidad cada vez mayor que siente Europa de reinventarse para hacer frente a los retos de la globalización. Pero pocas personas han comprendido que la creatividad y la innovación no llueven del cielo. El aspecto más importante es entender y concebir todo ello como un ecosistema que hay que cuidar y nutrir, consiguiendo que crezca con gran cuidado y dedicación.



ZINEMATEKA / CINE

ARTE BIZIAK / ARTES EN VIVO

ARTEA ETA EZAGUTZA / ARTE Y CONOCIMIENTO

PROGRAMAK ETA JAIALDIAK / PROGRAMAS Y FESTIVALES

ARTEA ETA TEKNOLOGIA: SORMEN ZUBIA
ARTE Y TECNOLOGÍA: PUENTE DE CREACIÓN

ARS ELECTRONICA
Babeslea Patrocinador:
BBVA

ARTISTS AS CATALYSTS

ARTISTAK, ELEMENTU KATALIZATZAILE GISA

AlhóndigaBilbaok, uztailaren 5etik irailaren 8ra bitartean, 'Artists as Catalysts' aurkeztuko du, Linzeko (Austria) Ars Electronica Centerrekin lankidetzan. Artistak artearen eta teknologia berrien bitartez ideien katalizatzaile gisa duen egitekoari buruzko erakusketa. Publikoak nazioarteko zirkuituko erreferenterik nabarmenenen lana eta ikerketak deskubritu ahal izango ditu AlhóndigaBilbaon, betiere, sormen teknologikoari lotutako garapen artistikoaren gaineko prozesuetan oinarrituta.

Katalizatzaileak esan nahi du prozesu bat azeleratzen duela. Arte garaikidean, artistak gure garaiko entzimak dira, gure proteina intelektuala, eta beraiek sorrarazten dute erreakzio hori. Erakusketa honetan ikusi ahal izango da artistek nola gauzatzen duten efektu hori, euren artelanen aurrean dugun jarreran eraginez.

Erakusketan, sortzaileak testuinguru artistikotik harago doaz, eta arazo globalagoei aurre egiten diete, hala nola, ingurumenari eta etorkizun iraunkorrari, baldintzatutako errealitatearen kontrolari eta manipulazioari, edota express yourself delakoari.

'Artists as Catalysts' erakusketan aurkeztuko diren piezak 'egizu zuk zeuk' kulturaren adibideak dira; hain zuzen ere, kultura hori azken hamarkadan sortu da, Interneten erabileraren bitartez. Pieza horietako askok prozesu honetan modu aktiboan parte hartzera bultzatzen gaituzte, eta mundu digitala ulergarriago egiten dute. Hori dela eta, kasu batzuetan, artelanekin elkarrekintzan aritzeko gonbita egiten da, beraien parte izatearen sententzia bizia, eta artea eguneroko bizitzan ere egon daitekeela deskubrituz.

Erakusketak nazioarteko 12 artelan ditu. Beraien artean, EHU Zarata Lab kolektiboak erakusketa honetarako berariaz egindako pieza bat dago, hain zuzen ere AlhóndigaBilbaon bertan egindakoa.

Uztailaren 5etik irailaren 8ra
Erakusketa aretoa. -2 Solairua
Sarrera dohainik

ARTISTAS, COMO ELEMENTO CATALIZADOR

AlhóndigaBilbao presenta del 5 de julio al 8 de septiembre 'Artists as Catalysts', en colaboración con Ars Electronica Center de Linz (Austria). Una exposición sobre el papel del artista como catalizador de las ideas, a través del arte y las nuevas tecnologías. El público podrá descubrir en AlhóndigaBilbao el trabajo y la investigación de los referentes más destacados del circuito internacional sobre los procesos de desarrollo artístico unidos a la creación tecnológica.

Catalizador significa que acelera un proceso. En el arte contemporáneo, los artistas son las enzimas, las proteínas intelectuales de nuestra época, que provocan esta reacción. En esta exposición se puede ver cómo los artistas ejercen ese efecto influyendo en nuestro comportamiento ante sus obras.

En la muestra, los creadores y creadoras van más allá del contexto artístico, enfrentándose a problemáticas más globales como el medio ambiente y el futuro sostenible, el control y manipulación de la realidad mediaticada o el express yourself.

Las piezas que se presentan en 'Artists as Catalysts', son un ejemplo de la cultura del 'hazlo tú mismo', surgida en la última década a través del uso de Internet. Muchas de ellas nos llevan a participar activamente en este proceso y a hacer más entendible el mundo digital. Por eso, en algunos casos, se invita a interactuar con las obras, vivir la sensación de formar parte de ellas, descubriendo que el arte puede estar inmerso en la vida cotidiana.

La exposición consta de 12 obras de procedencia internacional. Entre ellas se incluye una producida expresamente para esta muestra en AlhóndigaBilbao por el colectivo EHU Zarata Lab.

Del 5 julio al 8 septiembre
Sala de Exposiciones. Planta -2
Entrada libre



EARTH

FINNBOGI PÉTURSON (ISLANDIA)

Urez beterik dagoen ontzi batean, 7,8 hertzeko interferentziak sortzen dira. Soinua entzun eta sentitu egin daiteke, eta olatu moduan ikusten da uraren gainazalean. 7,8 hertzeko maiztasuna "Schumman resonance" izenarekin ezagutzen den fenomeno fisikoari dagokio. Fenomeno horrek luraren uhin elektromagnetikoen erresonantzia deskribatzen du. Artistaren aburuz, hori da, hain zuzen ere, gure "Ama Lurrak" egiten digun pultsua.

En un recipiente lleno de agua se crean interferencias a 7,8 hercios. El sonido, que se puede oír y sentir, se hace visible en forma de olas en la superficie del agua. La frecuencia de 7,8 hercios corresponde al fenómeno físico conocido como 'Schumman resonance', que describe la resonancia de las ondas electromagnéticas de la tierra. Para el artista este es el pulso de nuestra 'madre Tierra'.

ENERGY PARASITES

ERIC PAULOS (ESTADOS UNIDOS)

'Energy parasites' eskuz egindako objektuak dira, energia-bit txikiak gordetzeko diseinatutakoak. Energia uanean bertan erabil daiteke, berbideratu egin daiteke edo geroago erabiltzeko gorde daiteke, eta, modu horretan, energiaren jabetzaren kontzeptua zalantzan jartzen da.

'Energy parasites' son objetos hechos a mano y diseñados para almacenar pequeños bits de energía. Ésta se puede usar en el momento, redireccionarla o almacenarla para un uso posterior, poniendo en cuestión el concepto de la propiedad de la energía.




PROTEI

CESAR HARADA (REINO UNIDO)

Protei belaontzi formako robota da, ekipamendu librekoa eta forma mugikorrekoa. Proteik ozeanoak garbitzen ditu, haizearen indarraren bitartez. Cesar Haradak sortu zuen olio-isurketak garbitzeko. Gaur egun, zientzialariz, ingeniari, fabrikatzailez eta marinelez osatutako mundu mailako komunitate batek garatutako plataforma teknologiko gisa erabiltzen da, zama zientifiko erabilgarria eta garbiketarako ekipamendua itsasoz garraiatzeko.

Protei es un robot con la forma de un velero, de equipamiento libre y formas móviles, que limpia los océanos usando la fuerza del viento. Creado originalmente por Cesar Harada, para la limpieza de vertidos de aceite en los océanos. Actualmente, se usa como plataforma tecnológica desarrollada por una comunidad mundial de científicos, ingenieros, fabricantes y marineros para transportar por el mar carga científica útil y equipamiento de limpieza.



MERRICK

DAAN VAN DEN BERG (HOLANDA)

Pieza honetan, artistak ekintza futurista batekin amets egiten du. Leku ezezagun batetik, IKEAren zerbitzari informatikoan sartzen da. Bertan daude gordeta euren produktuen fitxategi guztiak, eta artistak 'Elefantiasis' birusarekin kutsatzen ditu fitxategi horiek (berak diseinatutako birusa da). Birusak forma-anormaltasunak, arrakalak, irtenguneak... sorrarazten ditu, baina ezaugarri horiek soilik agertzen dira bezeroak produktua etxean inprimatzen duenean, 3D inprimagailu bat erabiliz.

En esta pieza, el artista fantasea una acción futurista. Desde una localidad desconocida irrumpe en el servidor informático de IKEA donde están almacenados todos los ficheros de sus productos infectándolos con el virus 'Elefantiasis' que causa deformidades, grietas... que solamente aparecen cuando el cliente imprime el producto en su casa con su impresora 3D.



DESIRE OF CODES

SEIKO MIKAMI (JAPÓN)

Instalazio handi honek erakusten du nola lausotzen diren mundu birtualeko datu-gorputzaren eta mundu errealeko gorputz fisikoaren arteko mugak. Instalazio interaktiboak hiru atal ditu: kulunkan dabilizan zainketa-kameraz betetako horma (kamera horiek intsektuen antenen antza dute); robot-beso erraldoi, bideo-kamerekin eta sabaitik zintzilikatutako laser-proiektagailuekin.

Esta gran instalación muestra cómo se van difuminando las barreras entre el cuerpo de datos del mundo virtual y el cuerpo físico del mundo real.

La instalación interactiva consta de tres partes: una pared cubierta de cámaras de vigilancia contoneándose, que recuerdan a las antenas de los insectos; brazos de robot gigante equipados con cámaras de vídeo y proyectores láser suspendidos del techo.

NEWSTWEEK

JULIAN OLIVER (NUEVA ZELANDA)
& DANJA VASILIEV (RUSIA)

'Newstweek' delakoak haririk gabeko konexioetatik beste pertsona batzuek irakurritako albisteak manipulatzeko aukera ematen du. Entxufe baten karkasaren barruan kamuflaturik, tresna honek ordenagailu eramangarri, telefono edo tableta batetik irakurtzen diren albisteak urrutitik editatzeko aukera ematen du, erabiltzaileak horren berri izan gabe.

'Newstweek' errealitate demokratiko mediatizatuaren sintoma gisa sortu zen, eta manipulazio mediatikoaren praktikan rol jakin bat hartzeko aukera ematen die herritarrei.

'Newstweek' permite manipular una noticia leída por otras personas desde conexiones inalámbricas. Camuflado dentro de una carcasa de un enchufe, este aparato permite editar de forma remota las noticias que se leen desde un portátil, teléfono o tablet sin que el usuario lo sepa.



'Newstweek' surge como un síntoma de la realidad democrática mediatizada, dando una oportunidad a los ciudadanos de tener su papel en la práctica de manipulación mediática.

FACE TO FACEBOOK

PAOLO CIRIO &
ALESSANDRO LUDOVICO (ITALIA)

Proiektu hau esperimentu soziala izan zen. Facebookeko milioi bat profil lapurtu ziren, aurpegia ezagutzen duen software batekin iragazi ziren, eta hitzorduen webgune batera igo ziren (lovely-faces.com). Bertan, aurpegiaren arabera sailkatu ziren profilen nortasunak. Modu horretan, norbaiten aurpegiaren ezaugarriak gustatuz gero, beste pertsona hori aurrez aurre ezagutzeko aukera zegoen. Bost eguneko ekintza hau Global Mass Media Hack Performance izatera heldu zen.

Este proyecto fue un experimento social. Se robaron un millón de perfiles de Facebook, se filtraron con un software de reconocimiento facial y se subieron a un sitio web de citas (lovely-faces.com) clasificando su personalidad por sus expresiones faciales. De esta forma se daba la posibilidad de conocer cara a cara a alguien



que se sintiese atraído por los rasgos del rostro. Esta acción de cinco días se convirtió en un Global Mass Media Hack Performance.



STREET GHOSTS

PAOLO CIRIO (ITALIA)

Proposamen honetan, Google Street's Viewetik ateratako pertsonen irudiak tamaina errealean inprimatu, eta, irudi horiek atera ziren leku berberetan kokatzen dira. Moztutako eta mota guztietako espazioetan itsatsitako siluetak, leku batean dugun presentzia pixkanaka-pixkanaka nola desagertzen den erakusten dizkigutenak; alabaina, ebidentzia fisikoa iraunkorra da.

En esta propuesta, imágenes de personas tomadas del Google Street's View se imprimen a tamaño real y se colocan en el mismo lugar de donde fueron sacadas. Siluetas recortadas y pegadas en todo tipo de espacios con las que mostrar cómo nuestra presencia en un lugar se desvanece pronto pero la evidencia física es perdurable.



FACELESS
MANU LUKSCH
(AUSTRIA / REINO UNIDO)

Manu Lukschek inongo zinematografia-izpirik gabe errodatu zuen 'Faceless', Londresko bideozainketa-kameraren materiala erabiliz besterik ez.

Behin filmaketa amaituta, artistak zegokion eskaera egin zuen, bera agertzen zen metraje guztia lortzeko, eta gainerako pertsona guztien aurpegiak ezabatu edo estali ziren, euren pribatutasun-eskubidea errespetatu nahian. Ondorioz, filmak espazio publikoetako zainketa nonahiko eta orokortu gero eta handiagoa erakusten du.


Manu Luksch rodó 'Faceless' sin hacer uso de un ápice de cinematografía, sólo con el material de las cámaras de videovigilancia de Londres.

Una vez terminado el rodaje, la artista impuso la demanda pertinente para obtener todo el metraje en el que saliese y se borraron u ocultaron los rostros de todos los demás personajes en consideración a su derecho a la privacidad. El resultado es una película que muestra la cada vez mayor vigilancia ubicua y generalizada en los espacios públicos.

**LIGHT IS TIME FOLDS
ARE SPACE**
MATTHEW GARDINER
(AUSTRALIA / AUSTRIA)

Instalazio honek horma batean kokatutako gainazal batean muntatzen diren nano-elementuak ditu. Mugimenduan dagoen argi batek edo hainbat argik unitate horiekin jolasten dute, eta, horrela, gainazalaren itxura segundo batetik bestera aldatzen da.

Esta instalación consta de nano elementos que se montan en una superficie colocada en la pared. Luces en movimiento juegan con estas unidades haciendo parecer que la superficie cambia a cada segundo.




**FREE UNIVERSAL
CONSTRUCTION KIT**
GOLAN LEVIN / SHAWN SIMS
(ESTADOS UNIDOS)

'Free Universal Construction Kit' delakoak eraikuntzako hamar jostailu ospetsuren (Lego, Duplo, K'Nex...) piezak trukatzeko aukera ematen du. Modu horretan, forma berriak sortzen dira, hasiera batean itxita dauden sistemen artean. Egokigailu hauek dohainik jaitsi daitezke eta 3D motako inprimagailuekin inprimatu daitezke.

'Free Universal Construction Kit' ez da produktu bat, probokazio bat baizik. Proposamen artistiko honen bitartez, jabetza intelektuala eta ingeniartzaren aplikazioa kultur praktika gisa ikusiko ditugu.

'Free Universal Construction Kit' permite el intercambio de piezas entre diez populares juegos infantiles de construcción (Lego, Duplo, K'Nex...), creando nuevas formas entre sistemas que en principio están cerrados. Estos adaptadores se pueden descargar libremente e imprimir con impresoras 3D.



'Free Universal Construction Kit' no es un producto, es una provocación. Una propuesta artística que incita a considerar la propiedad intelectual y la aplicación de la ingeniería como un modo de práctica cultural.

ISILIK PENTSATU, ZARATATSU JOKATU

PENSAR EN SILENCIO, ACTUAR CON RUIDO

EHU ZARATA LAB: JOSU REKALDE /
MIKEL ARCE / ENRIKE HURTADO
(PAIS VASCO)



Ekintzarako instalazio hau bi hormak mugatzen dute; bertan, bisitariek euren iritziak eta ideiak idatz ditzakete.

Instalazioak bisitariarekin elkar eragiten du, idaztean edo margotzean sortzen den soinua jasoz, eta sentsoreen bidez kontrolatutako ordenagailuen bitartez soinu hori aldatuz. Antzeman ostean, soinua ingurunera bueltarazten da, musika sortzaile gisa.

Esta instalación para la acción es un espacio acotado por dos paredes en las que las personas visitantes pueden escribir sus impresiones e ideas.

La instalación interactúa con el visitante, recogiendo su sonido al escribir o dibujar y alterándolo a través de ordenadores controlados por sensores. Tras ser captado, el sonido se devuelve al ambiente a modo de música generativa.

PAOLO CIRIO



'TEKNOLOGIA TRESNA BAT BAINO EZ
DA, PINTOREENTZAT PINTZELAK DIREN
BEZALAXE'

Paolo Ciriok gaur egungo errealitateari eta arazoei aurre egiteko sormen artistikorako tresna perfektu bilakatu ditu sare sozialak. 'Face to Facebook' bezalako lanek –Alhóndiga Bilbaoko Artists as Catalysts erakusketa- ren barruan– sekulako oihartzuna bereganatu dute hedabideetan, eta Global Mass media Hack Performance bilakatu dira.

Baina Paolo Cirio, batez ere, ideien katalizatzaile sentitzen da, bere lanak egiak islatzeko eta ezarritakoaz haratago pentsarazteko ahalegin bat diren aldetik.

Zure ustez zer sentituko luke pertsona batek erakusketa honetan, 'Face to Facebook' horman edo 'Street Ghosts' irudien artean bere burua ikusiko balu? Badakizu inori gertatu ote zaion?

- Orain arte Lovely-Faces.com harremanetarako webgunean bakarrik gertatu da, astebe-
tez online egon zen bitartean. Bertan, per-
sona batzuek beren izenak edo irudiak topatu
zituzten, beren baimenik gabe aurkeztuak.
Horrek ez zien inolako graziaz egin. Halere,
nire proiektu guztietan egon daitekeen infor-
mazio pertsonala testuinguru artistiko baten
barruan jartzen da ikusgai, eta ingurunearen
ironiak eta absurduak ezin dio inori kalterik
edo minik egin.

'LA TECNOLOGÍA NO ES MÁS QUE
UNA HERRAMIENTA, IGUAL QUE LOS
PINCELES PARA LOS PINTORES'

Paolo Cirio ha hecho de las redes sociales la herramienta perfecta de creación artística para abordar la realidad y los problemas contemporáneos. Intervenciones como 'Face to Facebook' -presente en la exposición Artist As Catalyst de Alhóndiga Bilbao- han tenido un impacto mediático, convirtiéndose en un Global Mass Media Hack Performance.

Pero, sobre todo, Paolo Cirio se siente catalizador de ideas en la medida que sus obras tratan de revelar verdades y hacer pensar más allá de lo establecido.

¿Qué cree que sentiría una persona si se viera en esta muestra, en el muro de 'Face to Facebook' o entre las imágenes de 'Street Ghosts'? ¿Sabes si le ha ocurrido esto a alguien?

- Hasta la fecha sólo ha ocurrido en la web de contactos Lovely-Faces.com mientras estuvo online durante una semana. En ella algunas personas localizaron sus nombres e imágenes, presentados sin su autorización. No les hizo ninguna gracia que esto ocurriera. No obstante, la información personal que pueda haber en todos mis proyectos sólo se expone enmarcada en un contexto artístico, en el que la ironía y lo absurdo del entorno no pueda hacer daño a nadie.



Zergatik bideratu duzu zure bilaketa sare sozialen mundura?

- Erakargarria gertatzen da toki guztietatik datozen eta ausaz hautatuak izan diren ehunka mila lagunaldi berean artelan batean esku hartzea erdietsi izana.

Facebookeko profilak lapurtu, copyright bidez babestutako liburuak webgune batetik hartu... eta are Kaiman uharteetako milaka profil korporatibo ezabatu dituzu. Zer helbururekin egiten dituzu ekintza horiek? eta, zer ikusteko du horrek artearekin?

- Jarduera artistiko bat burutzeko material mota berri bat erabiltzea da xedea, eta gure gaur egungo gizartean eragin handiena duten eragileen inplikazioa duten arte-adierazpenak sortzea. Izan ere, nire gertatzen zaidana da ez dudala ulertzen gaur egun ikusi ohi dugun artearen zein zati lotuta dagoen gaur egungo arazoekin.

Zure proiektuak eskulturatzat jotzen dituzula diozu, zergatik?

- Informazioa, niretzat, lehengai bat da, eta Horri forma ematen diot, berriro bere testuinguruan kokatzen dut, osatu eta antolatu egiten dut, horri guztiari esanahi berri bat emateko. Horrenbestez, informazioaren manipulazio-prozesua eskultura-lan bat dela esan dezaket, inolako zalantzarik gabe. Prozesatu gabeko informazioetik abiatuta esanahi eta balio berriak sortzeak, azken batean, errealitatea zizelkatzeko balio izango digu.

Zein neurritan lagundu dute teknologia berriek zure proposamen edo ikerketa artistiko horretan?

- Teknologia tresna bat baino ez da, pintoreentzat pintzelak diren bezalaxe. Ez naiz tresnen xehetasun edo alderdi teknikoetan zentratuko, horien bitartez egin daitekeen eta artearen ikuspegitik berritzailea eta esanahiz betea izan daitekeen horretan baizik. Niretzat garrantzitsua da hizkuntza artistikoaren eta

¿Por qué ha centrado su búsqueda en el mundo de las redes sociales?

- Resulta fascinante el hecho de que haya sido posible por primera vez involucrar en una obra de arte simultáneamente a cientos de miles de personas procedentes de todas partes, seleccionadas al azar.

‘Roba’ perfiles de Facebook, toma de una web libros protegidos por copyright... e incluso ha eliminado miles de perfiles corporativos de las islas Caimán ¿Con qué fin lleva a cabo estas acciones, y qué tiene que ver esto con el arte?

- Se trata de utilizar un nuevo tipo de material para hacer una práctica artística, y de crear representaciones de arte en las que haya una implicación de los agentes que más están influyendo en nuestra sociedad contemporánea. De hecho a mí lo que me ocurre es que no entiendo qué parte del arte que solemos ver hoy en día tiene que ver con la problemática contemporánea.

Dice que considera sus proyectos son como esculturas ¿Porqué?

- La información para mí es materia prima a la que doy forma, vuelvo a contextualizar, compongo y estructuro para conferir un sentido nuevo a todo ello. Así pues, el proceso de manipulación de la información se puede sin duda considerar que es una actividad escultórica. La creación de nuevos significados y valores a partir de información sin procesar va a servir en última instancia para esculpir la realidad.

¿En qué medida han contribuido las nuevas tecnologías a su planteamiento o investigación artísticas?

- La tecnología no es más que una herramienta, lo mismo que los pinceles lo son para los pintores. No me voy a centrar en los detalles o aspectos técnicos de las herramientas, sino únicamente en lo que con ellas se puede hacer

jardun artistikoaren mugetatik harantzago joatea da, eta ikustea nola forma horretatik abiatuta munduaren eta geure buruaren ikuskera alda dezakegun, bide batez kultura eta gizarte ere aldatuz.

Aktibista konprometitu gogotsutzat daukazu zure burua. Ideien katalizatzaile bat zarela esango zenuke?

- Bai, espero dut nire proiektuak katalizatzaile izatea, egiak argitara ateratzen dituztenean eta pertsonen pentsamenduak ezarritako kliseak gainditzea lortzen dutenean.

Ekintza horien bidez zer erreakzio sortu nahi duzu publikoaren artean?

- Nire lanek benetako erreakzio bat eragin nahi dute nire helburuetatik abiatuta, helburu horiek, nahigabe, nire artelanetan inplikaturatzen baitira. Pertsonoi eragiten diguten gauza garrantzitsuetan pentsa dezagula lortu nahi dut eta, ahal denean, benetako aldaketa bat behartu, publikoa inplikatu, gizarteak gaur egun aurre konpondu behar izaten dituen arazoan hedaturaz ohartzeko.

Esango zeniguke zein den zure hurrengo proiektua?

- Nire proiektu garrantzitsu gehientsuenak erabat isilpekoak izan ohi dira argitaratu aurretik.

que resulte artísticamente novedoso y cargado de sentido. Para mí lo que es importante es ir más allá ante las limitaciones del lenguaje artístco y de la práctica artístca, y ver cómo de esa forma cambiamos la percepción del mundo y de nosotros mismos, cambiando de esta forma cultura y sociedad.

Se considera un activista, comprometido y entusiasta. ¿Cree que es un catalizador de ideas?

- Sí, espero que mis proyectos sean catalizadores cuando revelan verdades y consiguen que el pensamiento de las personas rebose los clichés establecidos.

¿Cuál es la reacción que desea provocar entre el público con estas acciones?

- Mi trabajo intenta provocar una reacción efectiva desde mis objetivos, los cuales se ven implicados involuntariamente en mis obras de arte.

Quiero hacer que las personas piensen en cuestiones importantes que les afectan y, eventualmente, forzar un cambio efectivo implicando al público para que se produzca una promulgación de la extensión de los problemas a los que la sociedad se enfrenta hoy en día.

¿Puede decirnos cuál es su siguiente proyecto?

- La mayor parte de mis proyectos cruciales suelen ser secreto absoluto antes de su publicación.

ARTEA ETA TEKNOLOGIA ARTE Y TECNOLOGÍA



FREE UNIVERSAL CONSTRUCTION KIT GOLAN LEVIN

'Free Universal Construction Kit' tailerra haurren eraikuntza-joko ezagunenaren pieza batzea ahalbidetzen duen ardatza da, hala nola Lego, Duplo edo K'Nex, printzipioz itxita dauden sistemen artean forma berriak sortuz.

Ekintza hau zenbait tokitatik libreki deskargatu daitezke, esate baterako, 3D modeloen set bat, gero 3D inprimagailu baten bidez inprimatu daitezkeenak.

Software proposamen bat da arte-formatzat hartua, open culture delakoa lehenetsiz, eta eztabaidagai ditu jabetza intelektualaren ideia eta ingeniari-tza jardun kultural gisa aplikatzea.

El taller 'Free Universal Construction Kit' es la matriz que permite la unión de piezas de construcción infantil populares como Lego, Duplo o K'Nex, creando nuevas formas entre sistemas que en principio están cerrados.

Estos adaptadores se pueden descargar libremente desde varios sitios como un set de modelos 3D que después se pueden imprimir con una impresora 3D.

Es una propuesta de software como forma de arte, en la que prima el open culture, que replantea la idea de la propiedad intelectual y la aplicación de la ingeniería como un modo de práctica cultural.

Ostirala, uztailak 5

16:00-21:00

Larunbata, uztailak 6

9:30-14:30h

Bastida Aretoa. -2. Solairua

20€ / 15€

Viernes, 5 de julio

16:00-21:00h

Sábado, 6 de julio

9:30-14:30h

Sala Bastida, Planta -2

20€ / 15€